

# "AITA GUREA"

## AUZIA

"Yakin" 2-gn. zenbakian artikulua bat irakurri nuen "Euskerazko Aitagurea dala-ta". Orduan enon kasu aundirik egin, gaiak berak naska ematen dit-eta. Geroago "Yakin" en bertan ikusi dut, ordea, jarraitzen duela eztabaidak eta gañera bada-goela bat aldekoa arrazoirik ematen ezpala badu ere. Alegia, orrela sortzen dira naaspillak, sentimenez gendea irabazita. Leen, batasunik ezpazegoan iritzietan, orain gutxiago. Euskaldunak zentzun aundikoak omen gara. Nik, ordea, sarri askotan burugabeak garela pentsatzen dit. Noiz asiko ote gara gizon izaten, ta ez ameslari?

Auzi onetan nere burua ipiñi nai nuke lekuko. Lekuona Jaunak 3-gn. zenbakian esaten duen bezala "Aita gurean" orain ogeta zazpi urte gauzatxo bat baizik ez omen zen aldatu, gizartean oso sustra-ituta dagoen formula batek merezi duen begirunea dela-ta. "Nola zeruan ala lurrean" esaten den tokian "Zeruan bezala lurrean ere" jarri zuten eta orretarako arrazoi bat eman omen zuten: bigarren era ori ere nolabait sustraitua zela. Eztut ukatuko. Baña ni nago ia ez ote zegoan askozaz ere sustraituagoa bestea. Eta gañera era apain arek duen jatortasuna nork ukatu? Aita gurean bakarrik etzaigu agertzen, egunero izketan ere erabiltzen ditugu ori ta orren antzekoak erruz. Goazen arira: naiz-eta aldatzeko erabaki ori artu orain ogetazazpi urte, nere aitak beti errezatu du leenbiziko era orretan, eta uste dut orrela egingo duela il arte. Gure Aita zerukoak mirakulu-en bat egiten ezpaldin badu. Alegia, esango dit norbaitek ondorengoak "ongi" egingo dutela, eta orreri erantzun bi emango dizkiot:

1.- Kasu onetan neu naiz ondorengo bat eta nik erderaz ikasi nuen umetan. Artu-ezazute au pentsagai eta ikusiko duzute anarkia norainokoa den.

2.- Nor gara gu izkuntza baten era ta itz sustraituak, ez bakarrik erriska edo eskualde batean, baizik-eta ia Euskalerrri osoan erroak dituztenak gaiz-

daudela esateko? Zein legeri atxematzen diogu ongia eta gaizkia, arazo aietan zer den finkatzeko? Ez ote da usteetako anarkiaren fruitu, eta ez izkuntzakoa?

Egiten diren teoretan oso kontuz ibilli bear dugu, zeren teoria guztiak gure buruaren krea-ziño uts batzuk baizik ezpaitira, lanean eta esagupidean jarraitu aal izateko, eta aietan ez betiko deskantsua eta pakea artu aal izateko, fedeko artiku luetan bezala. Dato berri bat, gai berri bat ezagutu ta bereala aldatu bear izaten dugu teoria, ia zeare askotan. Gure burutik kanpo gauzak diren bezala, dira; baiña ain da gutxi gure buruak ikus dezakeana, ezen ikusten duena bakarrik erabili izaten du oro konprenitzeko, teoriak eginik. Nola, ordea, konprenitu dezake oro, mundua leiotxo bitatik baizik ikusten ezpaitu, bere begi bietatik? Aurrekaldekoa baizik ezin ikus dezake, zeren atzean ezpaitu begirik. Eta noraño allegatuko litzake adierazten ari naizenaren neurria, esango banu begi biotatik oraiñaldia baizik eztuela ikusten eta vistak ematen duena, bizi garen munduak neurtu ezin genezakean denbora ta edadura dituelarik? Gaurko gizonak pentsatzen duen eta itz egiten duen guztia derboraren barna datorko eta beste gizon batzuk utzi digute testamentuan. Guk efektua ikus dezakegu. Baiña ez beti kausak. Eta ez dezagun beti aotan erabili sarri entzun oi den topike bat: erderakada.

A! Eta ez bekit saztu! Iñork eztauka eskubiderik guztiona den ondasuna norberekeri bategatik alperrik galtzeko eta nai den bezala aldatzeko. Dedu aundiagoa merezi du gizarteak. Alegindu omdasun berriak sortzen.

A. Irigoyen.